

FUNTSEZKO JARDUERAK

Bezeroak oso garrantzitsuak dira gure produktua aurrera eramateko eta irabaziak edukitzeko; beraz, bezeroak erakartzeko eta konbentzitzeko esfortzu handi bat egin beharko dugu; gure produktuak merezi duela eta gainera fidagarriak garela erakutsi beharko diegu. Fidagarriak garela erakusteko, detaile txikietan jarri beharko dugu arreta, adibidez, azkartasunean, itxuran, esandakoa betez...

Hau ondo ateratzeko, taldekide bakoitzak zeregin bat edukiko du egiteko; bakoitzak trebetasun ezberdinak dituen ondo etorriko zaigu proiektua aurrera eramaterakoan, hala ere funtsezko elkarterik gabe ezin izango gara gai enpresa aurrera eramateko.

Bakoitzak bere eginkizuna bete beharko du eta talde bat garenez, kideetako batek laguntza behar baldin badu elkarri lagunduko diogu.

Eider oso trebea da harremanetarako, beraz bera arduratuko da bezeroei kasu egiteaz, bai lokalera joaten diren bezeroez eta baita telefonoz deitzen duten bezeroez ere.



Enpresan telefono mugikor bat edukiko dugu, beraz, Eider arduratuko da mugikor horretaz. Eiderrek bezeroei tratu egokia eskainiko die eta eskatutako guztia bete beharko dugu hauek guran konfiantza gehiago edukitzeko; beraz, Eiderrek kide guztiei jakinarazi beharko die bezeroarekin adostu duena. Enpresa batean komunikazioa oso garrantzitsua denez, Eider arduratuko da gure arteko komunikazioaz.

Eiderrek lokalean aurkezten diren bezero zein deitzen duten erosleei zalantza guztiak argituko dizkie eta informazioa luzatuko die.

Ainara berriz, ekonomialaria da, beraz bere kargu utziko ditugu zenbakiak eta paperak. Eiderrekin batera ibiliko da lokalean lanean. Hasiera batean bera izango da laguntzak eskatzen arituko dena eta berak egin beharko du aurrekontua.

Gure enpresa funtzionatzen hasten denean, bera izango da nominak etab. eramateaz arduratuko dena, abokatuarekin batera.



Xabier aldiz materialaz arduratuko da eta berak produktua egiteko beharrezko materiala eskuratzeaz arduratuko da, beraz Xabier ere lokalean ibiliko da muntaketak egiten eta material egokiena prezio hoberenean aurkitzen Interneten bidez. Guretzat oso garrantzitsua da eskaini nahi dugun produktua hemengoa, Euskal Herrikoa izatea, eta Xabierrek esperientzia zein kontaktu asko dituenez, ez da oso zaila izango aukera on bat aurkitzea. Xabierrek produktua muntatuko du ere, eta laguntza behar baldin badu Ikerrek lagunduko dio ikasketa berdina baitituzte. Ez dugu kanpoko laguntzarik beharko bien artean ondo moldatuko direlako produktua muntatzeko orduan.



Ikerrek furgoneta bat duenez, ederki etorriko zaigu materiala alde batetik bestera garraiatzeko eta bileretara edo joateko. Xabierrek, materiala zein tokitan jaso behar duen informatuko dio, eta Ikerrek furgonetan kargatu eta lokalera eramango du. Gainera, Ikerrek oso orientazio ona du eta aurreko lana dela eta, Euskal Herriko industrial gune eta herri gehienak ezagutzen ditu, beraz denbora galtzeko aukera gutxiago ditugu.



Hasieran, ez dugu etekin asko aterako, eta dirua galduko dugu, orduan, publizitatea egitea garrantzitsua eta derrigorrezkoa izango da proiektua aurrera ateratzea nahi badugu, horrela, umeentzako karro egile gehiagok gure

produktua ezagutu ahalko dute, baita gainerako biztanleek ere, batez ere umea eduki nahi duten pertsonak, izan ere, gure produktuak eskaera handia duela ikusten badute karroak fabrikatzen dituztenak guregana etorriko dira. Horretarako taldekide guztiak lokalean elkartuko gara astean bitan publizitateari buruz hitz egiteko. Sare sozialetan kontu bat sortu beharko dugu enpresa ezagunagoa izateko, beraz etengabe konektatuta ibili beharko gara. Gainera, aldizkarietan eta kalean agertuko diren anuntzioen diseinua adostu beharko dugu eta baita webgunearen diseinua ere. Bilera hauetara gure informatikoa ere etorriko da, horrela errazagoa izango zaigu adostea eta laguntza gehiago izango dugu publizitatea egiterakoan.